

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroak eta Europako Batzordeak «Science meets Regions» izeneko ekimena antolatu dute, zientzia herritarrengandik gertuago egote aldera

*Uxue Barkos Lehendakariak Gabrovo (Bulgaria) lurraldeko arduradunei, proiektuaren bazkideei, egin die harrera gaur goizean, NUPan egindako klima aldaketaren inguruko lurralde estrategiei buruzko dibulgazio jardunaldian*

Asteartea, 2019.eko otsailak 26

Nafarroara bertaratu dira Gabrovo (Bulgaria) lurraldeko hainbat ordezkari, honako topaketa honetan parte hartzeko xedez: «klima aldaketari eta eraginkortasun energetikoari lotutako EBko lurralde eta toki estrategiak». Hain zuzen ere, Europako Batzordeko Ikerketa Zentroak eta Eskualdeetako Batzordeak, NUPak eta Nafarroako Gobernuak Bruselan duen ordezkartzarekin batera, antolatutako dibulgazio zientifikoko jardunaldia da horixe.



Barkos Lehendakariak eta Elizalde kontseilaria EBko ordezkariekin.

Jardunaldia Nafarroa buru eta Gabrovo bazkide dituen lankidetzaren parte da, zeinak Bulgarian, apirilaren 24an, egingo den beste dibulgazio zientifikoko ekitaldi bat jasotzen baitu. Europako hainbat lurraldetan «Science Meets Regions» ekimenaren baitan hautatutako 23 proiektuetako bat da; aipatu ekimen hori zientzia lurraldeetara hurbiltzeari buruzkoa da, eta 2016an eman zitzaion hasiera, Bruselan.

Ordezkariak honako hauek dira: Ivelina Vasileva, Bulgariako Ingurumeneko ministro ohia eta, gaur egun, bere Ingurumen Batzordeko kidea; Tanya Hristova, Gabrovoko alkatea; Dragomir Tsanev, Bulgariako EcoEnergy Network-eko zuzendari exekutiboa; eta hondakinak kudeatzearen inguruko Gabrovoko hainbat aditu.

Jardunaldiaren hasieran, Nafarroako Gobernuko Lehendakari Uxue Barkosek harrera egin die ordezkari horiei Nafarroako Jauregian, eta honako hau nabarmendu du: «Nafarroak aurrerapauso nagusiak eman ditu klima aldaketaren kontrako borrokaren alorrean, trantsizio energetikoa eta hondakinen kudeaketa barne. Estatistiken arabera, EBko eredu onenatarikoak gara bi alor horietan».

NUPko Jerónimo de Ayanz I+G zentroan egindako lanaioaren hasieran, Landa Garapenerako, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko sailburu Isabel Elizaldek esku hartu du, eta honako hau azpimarratu du: "premiazkoa da nazioarteko konpromiso bat hartzea, eta lurraldeen lidergoa oso garrantzitsua da. Izan ere, tokiko ekintzan bereziki hartzen eta ezartzen ari dira neurriak", klima aldaketa arintzeko eta aldaketa horretara egokitzeko. Alde horretatik, Elizaldek gogorarazi du zein izan den Nafarroako Gobernuak klimaren inguruan egindako estrategia eta lana. Estrategia hori [KLINAn, alegia, klima aldaketari buruzko ibilbide orrian](#) garatu da, eta hainbat proiektu eta arauditan zehaztu da, besteak beste, onartuta eta indarrean dagoen [Hondakinei buruzko Legean](#), bai eta Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Legean ere. Azken horren zirriborroa osatuta dago jada, eta laster hasiko da lege horren parte-hartze prozesua.

Europako Batzordeaz eta Gabrovoko arduradun gorenez gain, Ingurumeneko zuzendariak, Smart Cities institutuko (NUP) zuzendari Carlos del Ríok eta Nasuvinsa erakundeko langile Carlos Chocarrok ere esku hartu dute jardunaldian, besteak beste.

Nafarroako ekitaldiaren xedea jardunbide egokiak trukatzeko da, hiru esparrutan: klima aldaketari eta eraginkortasun energetikoari lotutako lurralde eta toki estrategiak; eraginkortasun energetikoa etxebizitzetan eta eraginkortasun hori finantzatzea; eta hondakinak modu eraginkorrean erabiltzea eta haien tributazioa. Helburua da klima aldaketaren eta energia politiken inguruan herritarrek duten konfiantza eta konpromisoa sustatzea eta bi gai horien inguruko politiken ezagutza sakontzea, bai eta etorkizuneko deialdi edo ekimenetan elkarrekin parte hartzeko aukerak hobetzea ere.



Barkos Lehendakariak egin die harrera Gabrovoko (Bulgaria) ordezkariak.